

Baionako Mercure hotelean, 1991ko maiatzaren 31an egin dute euskaltzain osoek euron hilabeteroko batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariordea, eta J.J. Zearreta ekonomi eragilea, urgazleak, dagozkien ataletan.

P. Altuna eta F. Krutwig jaunek ezin etorria adierazi dute.

Apirileko batzar-agiria onartu da.

Euskara Batuko batzordea

Aspaldi aurkeztutako “bat” eta “batzu”-en deklinabidez mintzatu da I. Sarasola bere txostenean. Sistema redundantea deitu duen hitzen bikoiztasuna bateratzearekin ez dela ezer galtzen esanez, hasi du agerpena. Hori dela eta, “bat” hitzak dituen forma bikoitzak bateratzeko proposamena egin du, mugagabearen deklinabidea, mugatuarena eta leku-denborazko kasuena, sailkatuz. *Batzu/batzuk* formak direla eta, euskara baturako bigarrena gomendatzea proposatu du.

Bere kezka agertu du A. Irigoienek idazki baten bidez. *Batean / batetan* formei buruz, eredu bi daudela zuzenak eta biak bizitzea hobe dela, bakoitza non eta noiz erabili kontuan harturik, esan du. “Batzu” nominatiborako finkatzeaz 1978an berak esana errepikatu du egun. Ez du uste Euskaltzaindia gauza horietan gehiegi sartzea merezi lukeenik.

Salbuespenak baztertu gabe, txostengileak proposatutako eredu batuak onartu dira.

Eritzi / iritzi forma bien artean euskara baturako *iritzi* gomendatzearen alde agertu da Sarasola, *e* letraz hasten diren formak euskaraz zaharragoak direla aitortu arren. Bizkaian *eretxi* da nagusi, eta Debarroan ere, dio J. San Martinek. Biak ontzat emanak ditu Euskaltzaindiak eta ez litzateke horrelakoetan eztabaida berririk sortu behar, J.M. Satrustegiren ustez.

Beste batzarre batean ikusteko utzi da gaia.

Kanpo-izendapenak

Madrilgo Kultura Ministeritzatik 1991ko *Letras Españolas* delako izendapenaren epaimahairako ordezkaria eskatu dute. Berandu iritsi zelarik gutuna, ezin bestean euskaltzainburuak J.M. Lekuona bidali behar izan zuen batzarrearekin kondatu gabe.

Era berean eskatu dute Kultura Ministeritza horretatik *Haurren Literatura* sariketarako ohi den ordezkariaren izena, eta Pakita Arregi joango da Zuzendari-zaren erabakiz.

Azkenik, *Creación Literaria* delako literatur sorketako epaimahaira Euskaltzaindiaren izenean E. Knörr proposatzea onartu da.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Eneko Oregi, Itzulpen-zerbitzu Ofizialeko buruak, gutun baten bidez "Letra Larrien Erabileraz" Euskaltzaindiak hartutako erabakiei oharrik egiten dizkio. Astirik ezean, datorren batzarrean aztertuko da gaia.

Erakunde berak bidalitako beste idazki bat ere jaso da, HAEE / IVAPek Herri-Administrazioen esku ipini nahi duen Euskalterm, UZEIko terminologi-bankuaren berri emanez. Hitzarmena lehenbaitlehen garatzeko Lotura batzordea sortu nahi da, Euskaltzaindiko partaide bat barne delarik. Izendapena egin da eta A. Urrutiaren izena bidaliko zaie, M. Azkarate izango delarik haren ordezkoa.

Zarauzko Udalak eratu ohi duen X. Xabier Lizardi sariketarako epaimahaikide J.A. Mujika izendatu da.

Getxoko Kultur Etxeak sortu duen I Juan Gorostiaga Euskal Literatura leihaketako epaimahairako J.A. Arana Martija izendatzen du Euskaltzaindiak.

Urteroko "Orixe" sarian P. Altuna egongo da Erakunde honen izenean.

Bilboko Burtsak bere Boletin elebiduna atera nahi duela-ta, zenbait hitz teknikoren itzulpena eskatu du. E. Erkiaga eta X. Gereño gai horietan ikasiak direnez, beren esku utzi da eginkizun hau.

Eskuarteoak

B. Oihartzabalen euskaltzain sarrerako joan-etorriak zehaztu dira. Hori dela eta euskaltzain oso guztien zerrenda banatu du Idazkariordeak euron adina eta euskaltzain izendapenaren datekin.

P. Charrittonek aditzera eman du J. Mendiague olerkariaren jaioteguna eta heriotze-data aurkitu dituela (Aldude 1845 - Montevideo 1937).

Eta besterik gabe amaitutzat eman da batzarrea.

BATZAR IREKIA

Angeluko Udaletxean, 1991.eko ekainaren lean, egin du Euskaltzaindiak Beñat Oihartzabalen sarrera dela eta batzar irekia. Goizeko 10 t'erdietan bildu dira: J. Haritschelhar, J.M. Lekuona, J.M. Satrustegi, J.A. Arana Martija, P. Charritton,

J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, E. Larre, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; G. Alfaro, P. Andiaza-bal, G. Aurrekoetxea, M. Azkarate, R. Badiola, R. Camblong, J. Camino, J.B. Dirassar, A. Eguzkitza, M. Goienetxe, B. Goity, M. Itzaina, X. Kintana, J. Lakarra, D. Landart, J.M. Larrarte, M.^a P. Lasarte, J.L. Lizundia, J.A. Mujika, L.M. Mujika, G. Rebuschi, A. Sagarna, X. Videgain eta J.J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

Mahaiburuan eseri da V. Mendiboure, Angeluko auzapeza, eta lehen lerrokadan jaun hauek: Sapéd, Baionako jaun suprefeta; A. Lamassoure, frantses eta eurodiputatu; A. Luberriaga, Azkaingo auzapeza; Aniotzbehete, Sarako auzapeza; J.P. Destrade, kontseilari orokorra; C. Harlouxet eta A. Noblia, Baionako zinegotziak; J. Abeberry, Miarrizteko zinegotzia; Tx. Heguy, Euskal Kultur Era-kundeke zuzendaria eta R. Berriozabal, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko zuzendaria.

Victor Mendiboure herriko auzapezak bere agurra kaskoinez lehendabizi eta frantsesez gero egiten du, bera kaskoin hiztuna baita. Adierazten du Angelu jende hizkuntza desberdinez populatua dela, "ongi etorri" hitzekin amaitzen duelarik.

Arrapostu gisa J. Haritschelhar euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren berri ematen du, nola eta nortzuk sortu zuten euskararen Akademia azalduz. Baita ere Hegoaldean lau Diputazioek 1918an, Espainiako Estatuak 1976an eta harrezkerotik Euskadiko Gobernu eta Nafarroakoak eman diotela ofizialtasuna, Iparraldean ordea, ez Frantziako Estatutik, ez Departamendutik, ez bestengandik ez du horrelako aitopeneik jaso. Horrez gain Euskaltzaindiak eskuartean darabiltzan eginkizun nagusiak aipatu ditu.

Jarraian, Arautegiaren 36. artikulua eta Barne Erregelaren 45. artikulua agintzen duena betez, bi euskaltzain joan dira B. Oihartzabalen bila, hain zuzen, J.L. Davant eta J.A. Arana Martija.

Beñat Oihartzabal euskaltzain oso berria sartzen da aretoan eta sarrera hitzaldia egiten du. Hastapenean P. Lafittek berarengan izan zuen eragin berezia azpimarratu du. Mintzaldi sakon batetan aulkidun zendua gogoratzen duelarik ez bere antzinakoa omentzeko bakarrik, ohitura den bezala, baizik eta iker gaitzat ere Jean Hiriart Urrutyren obra hartuz. Elizgizona eta bere herrian errotutako euskaltzalea agertuz alorrik alor, *Herria*, *Gazte*, *Etxea* eta beste zenbait aldizkari-tako kronikalariaren hizkuntza eta estiloa zehazki aztertu ditu. Haren familiako beste Hiriart Urruty kazetariarekin gonparaketa ere egin du, belaunaldi eta izakera desberdinetakoak izanik, biok Euskal Herriko tradizioei atxikiak.

Jean Haritschelhar euskaltzainak eman dio erantzuna. Beñat Oihartzabalen bizitza eta batez ere, beronen ikasketa eta ikerlanez xehetasun franko ematen ditu. Parisen sortua izanik, lapurtar jatorrikoa, legegizon egin zen aurreneko eta hizkuntzalari gero, honetan doktoradutza tesi bikaina burutuz. Gramatikaren espezializatu dela dio, bereziki sintasian. L. Dassance, lehendabizi, eta J. Hiriart Urruty gero eseritako 16.aulkiaren jabe egin den honek, bere gaztetasunean lan oparoa eskaini diola euskarari eta Euskaltzaindiari, esan du erantzuleak.

Erantzun hitzaldiaren ondotik, denak zutik, J. Haritschelhar euskaltzainburuak euskaltzain-agiria eskuratzen dio eta Erakundearen domina ezarri. Euskal-

tzain berria zoriondu eta, jarraian, gauza bera egiten dute beste mahaipuruko eta gainontzeko euskaltzain oso guztiek.

Angeluko Herriko Kontseilu edo Udalak eskainitako aperitifarekin amaitu da egungo eginkizuna.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

Jose M. Satrustegi
idazkaria